

elkartuk (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua laguntzailea duela, bidaia desberdinak antolatu ditu 2018. urterako.

Bidaia hauek pentsatuak izan dira bereziki desgaitasun fisiko, organiko edo sentsoriala izanik, OPOR BATZUEZ GOZATU EZINGO LUKETENENTZAT.

IZENA NORTZUK EMAN DEZAKETE?

16 urte edo gehiago eta desgaitasun fisiko, organiko edo sentsoriala dutenek. Eskatzaileek, oporrak behar bezala gozatzeko, ezin dute gaixotasun larririk edo osasun zerbitzu berezien beharrik izan. Ezta bere buruko arazoengatik, taldeko eta inguruko elkar bizitze giroa aldatu dezaketeneke ere.

Desgaitasun handiagoa jasaten duten eta mugikortasun arazo larriagoak edota behar bereziko egoerak-adibidez, diru sarrera eskasak, e.a.- dituztenek lehentasuna edukiko dute.

Oinarriko beharrak betetzeko beste pertsona baten laguntza behar duten eskatzaileek, zerbitzu hori egiteko gai den beste pertsona baten izena eman beharko dute. Beharrezko laguntzaile honek, bidaia eskaintzen den prezio taularen arabera ordaindu beharko du. Beharrezkoa ez den laguntzailearen bat eramanez gero, honek bidaiaren kostu osoa ordainduko du.

ONDORENGOA BARNE

- Calpe, Salou eta Madriderako joan-etorriak egokitutako autobusean egingo dira, bazkaria barne.
- Berlineko (Alemania) bidaia hegazkinez Bilbotik egingo da. Donostiatik Bilbora eta Aireportutik Hotelerako joan-etorriak egokitutako autobusean egingo dira.
- Ibilaldia egokitutako autobusean Calpe eta Salouko txandetan. Egokitutako autobusean Aranjuez, Toledo, Segovia eta Sorriara ibilaldiak Madriderako Txandan. Autobus egokituak eta gaztelera-hizkuntza gidarekin bisitaldi programa zabala Berlineko (Alemania) txandan.
- Hoteletako egonaldia "gela bikoitzean". Gela bakarra nahi duenak dagokion gehigarria ordaindu beharko du. Egonaldia "PENTSIO OSOKOA" izango da Calpe eta Salouko bidaietan. Berlineko (Alemania) bidaietan lau egun pentsio osoan izango dira eta besteak pentsio erdian. Madriderako bidai kulturalan egonaldia eta gosaria sartuko dira, baita Aranjuez, Toledo, Segovia eta Sorriako ibilaldietako bazkariak.
- Bidai aseguruak.

Gela bakarraren prezioa edo edozein argibide nahi izanez gero, **elkartura** jo dezakezu.

Taldeak

- 01 CALPE** Ekainak 11tik 25era
Alicante - Diamante Beach Hotela
- 02 SALOU** Ekainak 30etik uztailak 14ra
Tarragona - Salauris Hotela
- 03 BERLÍN** Uztailak 23tik 30era
Alemania - Ku'Dam 101 Hotela
- 04 SALOU** Abuztuak 11tik 25era
Tarragona - Salauris Hotela
- 05 MADRID** Irailak 8tik 14ra
Bidai Kulturala
Novotel Madrid Center Hotela

Irisgarritasun baldintzak: Txanda desberdinetako hotelak irisgarriak dira (ez egokituak). Ezin da bermatu egokitutako gelak esleitzea.

Eskabideak, izena emateko orrietan eskatzen diren datu guztiekin, ahal izanez gero **apirilaren 20a baino lehen** aurkeztu beharko dira helbide honetara:

elkartu
(Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa
duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea)

Ondarreta pasealekua, 5 behea
20018 Donostia - San Sebastián
tel.: 943 31 67 70
fax: 943 31 63 79
elkartu@elkartu.org

Izen-ematea **elkarturen** web orriaren bidez egin ahal izango da ere

www.elkartu.org

OHARRA: Prezioak, diru-sarreraren arabera, alboko orrialdean dituzunak dira, bai eskatzaileentzat eta beharrezko laguntzaileentzat ere.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Departamento de Políticas Sociales
Gizarte Politikako Departamentua

www.elkartu.org



Elkarbidean programa 2018



>>> Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa
Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea

